BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

4198

AGINDUA, 2011ko ekainaren 30ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Trapagarango (Bizkaia) «Trapagaran» Musika Eskola Publikoari musika-espezialitateak gehitzeko baimena emateko dena.

Trapagarango (Bizkaia) «Trapagaran» Musika Eskola Publikoak musika-espezialitateak gehitzeko egin duen eskabidea aztertu da.

Espediente horri Bizkaiko Hezkuntza Ordezkaritzak egin dizkio izapideak, indarreko arauek eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio eta eskumena duten erakundeek egin diote txostena.

Urriaren 27ko 289/1992 Dekretuaren II. kapituluan ezartzen da irakasleei musika-eskoletan irakatsi ahal izateko eskatzen zaien titulazioa (289/1992 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoan musika-irakaskuntza espezifikoa, arautu gabea, ematen duten ikastegiak –musika-eskolak– sortzea eta horien jarduna arautzen duena; 1993ko urtarrilaren 4ko EHAA).

Indarrean dauden legeak ikusi ondoren eta arauz eskatzen diren baldintza guztiak betetzen direla kontuan harturik, hau

EBATZI DUT:

1. artikulua.– Trapagarango (Bizkaia) «Trapagaran» Musika Eskola Publikoari baimena ematen zaio, 2011-2012 ikasturtetik aurrera kantu (korala) eta biolontxelo espezialitateak irakasteko. Eskolaren kode-zenbakia 48011342 da, jauregi-kulturtxean dago eta Trapagarango (Bizkaia) Udala da titularra.

Ikastetxe horretan irakaskuntza hauek emango dira: 2. eta 3. mailakoak.

Adarra:

Kantua: korua.

Tresneria sinfonikoa: Biolontxeloa.

2. artikulua.– Indarrean dauden legeak betetzera beharturik gelditzen da, ikastetxea agindu honen bidez baimendutako unitateetako irakasleen titulazioari dagokienez. Bestela, emandako baimena baliogabetuta geratuko da.

3. artikulua.– Ikastetxeak Eraikuntzako Kode Teknikoa bete beharko du (martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua), bai eta indarreko legeriak ezartzen dituen higiene-, osasun-, akustika-, bizigarritasun-, segurtasun- eta irisgarritasun-baldintzak ere. Ikastetxeko titularrarena izango da baldintza horiek ez betetzearen erantzukizuna.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honen aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren

Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko ekainaren 30a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.